



MERCABILBAO EZAGUTZEN DUTEN EUSKAL HIRITARREN %74K USTE DUTE BERE PRODUKTUAK OSASUNGARRIAK, GOXOAK ETA KALITATEZKOAK DIRELA

- Joan den apirilean egindako kalitate-kanpainaren inpaktua neurtzeko, 2.300 elkarrizketa egin dira telefonoz EAEko lurralde guztietan zehar
- Elikagaiak banatzeko zentroak oso ongi batez gainditu du ezaugarriei buruzko azterketa, batez besteko kalifikazio globalean 5 puntutik 4 lortuz dituelarik
- %44k uste dute Merabilbaok Ingurumena zaintzen laguntzen duela

Bilbon, 2010eko urriak 7.- Mercabilbao kontrola eta bermea duten produktuekin identifikatzen da, produktu osasungarri eta kalitatezkoekin. Mercabilbao ezagutzen duten Euskadiko hiritarren %74k uste dute bere produktuak osasungarriak, goxoak eta kalitatezkoak direla. Hauexek dira, EAEko lurralde guztietan telefonoz egindako 2.300 elkarrizketari buruzko azterketatik atera daitezkeen ondorioetako batzuk. Test kuantitatibo honek, hiritarrek Mercabilbaori buruz eta banaketa-gunearen ezaugarriei buruz duten iritzia aztertzen du.

Euskal Autonomia Erkidego osoko elkarrizketatuen %65ek ziurtatu dutenez, Mercabilbao eta banaketa-zentro honen jarduera ezagutzen dituzte. Bizkaian, portzentajea %91koa da, hots, Bizkaiko hamar hiritarretik bederatzik Mercabilbao ezagutzen omen dute; Gipuzkoan %36k, eta Araban %30ek.



Eskualde edo lurraldeen gainetik, elkarrizketatuek Mercabilbao identifikatzeko aipatzen dituzten kontzeptuak, joan den apirileko sustapen-kanpainak azaltzen zituen berberak dira: segurua, goxoa eta osasungarria. Mercabilbao ezagutzen duten euskal hiritarren %74k aintzakotzat jotzen dituzte ezaugarri horiek. Bizkaian, portzentajea %77koa, Gipuzkoan %65ekoa eta Araban %68koa. Honela, elikagaiak banatzeko zentroak oso ongi batez gainditu du ezaugarriei buruzko azterketa, batez besteko kalifikazio globalean 5 puntutik 4 lortu dituelarik.

Ingurumenari dagokionez, Euskadiko hiritarren %44k uste dute Mercabilbaok zaintzen laguntzen duela, eta datu ez da ia aldatzen lurralde historiko batetik bestera: %45 Bizkaian, %44% Gipuzkoan eta %35 Araban. Erosketa-ohiturei buruz, hiritarren %52k produktu freskoak saltoki espezializatuetan erosteko joera dute. Joera hau are handiagoa da Mercabilbao ezagutzen duten 45 urtetik gorako emakumeen artean.

Informazio gehiago:

Libe Romaña

El Bureau de la Comunicación

944 240 594//691429287

libe@elbureau.net